| IZENBURUA | TÍTULO |
| --- | --- |
| **CAFek legez kanpoko asentamenduak sendotzen laguntzen duten proiektuetan parte hartzen jarraitzea arbuiatzeko mozioa.** | Moción para manifestar el rechazo de que CAF continúe participando en proyectos que contribuyen a la consolidación de asentamientos ilegales. |
| **JUSTIFIKAZIOA** | **JUSTIFICACIÓN** |
| **Gai honek Beasaingo enpresak munduan duen irudirako duen garrantzigatik eta CAF Nazio Batuen Erakundearen zerrenda beltzean (Israelgo gobernuaren lurralde palestinarren okupazioaren harira) sartzeak dakartzan ondorioak direla eta, mozio hau osoko bilkuran eztabaidatzea eskatzen dugu, zinegotzi guztiek beren iritzia eman dezaten beren botoaren bidez.** | Debido a la importancia del asunto para la imagen que la industria beasaindarra tiene en el mundo y las derivas que la inclusión de CAF en la lista negra de la ONU en relación con la ocupación de territorios palestinos por parte del gobierno de Israel, solicitamos el debate en pleno de la presente moción para que todos los concejales y concejalas puedan dar su opinión por medio de su voto. |
| **Mundu osoak Gazako zerrendako su-etenari eta bake-prozesuari begiratzen dion bitartean, Israelgo Estatuak palestinarren lurrak okupatzen eta bertako biztanleak lekualdatzen jarraitzen du.** | Mientras el mundo entero tiene la mirada puesta en el alto el fuego y el proceso de paz en la franja de Gaza, el Estado de Israel continúa su ocupación de tierras palestinas, desplazando a la población local en el proceso. |
| **Legez kanpoko okupazio-estrategia horretan kokatzen da** | Es esa estrategia de ocupación ilegal dónde se enmarca la infraestructura ferroviaria que ha |

| | |
|---|---|
| **CAFek NBEren zerrenda beltzean postu bat izatera eraman duen trenbide-azpiegitura.**<br><br>**Hori dela eta, azken hilabeteetan enpresa beasaindarra komunikabideetan maiz ikusi dugu, Israelekin eta bere proiektu kolonialista eta espantsionistarekin duen harreman komertzialagatik. Gure ustez, horrek enpresari eta, hedaduraz, Beasaingo udalerri osoari ospe txarra ekar diezaioke.**<br><br>**Horregatik guztiagatik, premiazkotzat jotzen dugu Beasaingo Udalak bere iritzia ematea CAFek gaur egun Israelen duen kontratuaren eta proiektuaren inguruan, beasaindarrek eta inplikatutako enpresak berak ezagut dezaten.**<br><br>**CAF enpresak, egoitza Beasainen duenak, Jerusalemgo tranbia arinaren proiektuan parte hartzen du. Egitura honek asentamenduak lotu eta Jerusalem ekialdea zeharkatzen duten trazadurak ditu bere baitan, nazioarteko zuzenbideak aitortutako okupaziopeko lurraldeetan.** | llevado a CAF a ocupar un puesto en la citada lista negra de la ONU.<br><br>Este hecho ha supuesto que en los últimos meses la empresa beasaindarra haya ocupado el foco mediático por su relación comercial con Israel y con su proyecto colonialista y expansionista, cuestión que en nuestra opinión puede derivar en un desprestigio para la empresa y, por extensión, a todo el municipio de Beasain.<br><br>Por todo ello, consideramos urgente que el Ayuntamiento de Beasain manifieste su opinión con respecto al contrato y el proyecto que actualmente CAF mantiene en Israel, para que así la conozca tanto la ciudadanía beasaindarracomo la propia empresa implicada.<br><br>La empresa CAF, con sede en Beasain, participa en el proyecto del tranvía ligero de Jerusalén, que incluye trazados que conectan asentamientos y atraviesan Jerusalén Este, territorios bajo ocupación reconocida por el derecho internacional.<br><br>Recientemente, la ONU ha introducido a CAF en la lista negra de empresas que se benefician de |

| | |
|---|---|
| **Duela gutxi, NBEk Israelek Palestinan egindako krimenen enpresa onuradunen zerrenda beltzean sartu du CAF, Zisjordania okupatuan jarduteagatik. Gertakari honek enpresak giza eskubideen urraketak dakartzaten proiektuetan duen inplikazioa berrikusteko eskakizuna berresten du.**<br><br>**Gainera, Espainiako Gobernuko Kontsumo Ministerioak berak iragarri du CAFen jarduera ikertuko duela, okupaziopean dauden lurraldeetako proiektuetan parte hartzeak eragin ditzakeen urraketak direla eta.**<br><br>**Beasaingo Udalak enpresa pribatu bat nazioarteko kontratu bati uko egitera behartzeko eskumenik ez duen arren, giza eskubideak urratzen dituzten enpresa-estrategien aurrean gaitzespen jarrera irmoa adierazteko zilegitasun eta erantzukizun etiko nahiz politiko osoa ditu.**<br><br>**CAF Beasaingo enpresa den heinean, udalerri honek haren** | los crímenes de Israel en Palestina, por operar en la Cisjordania ocupada. Esta inclusión refuerza la exigencia de que la empresa revise su implicación en proyectos que implican violaciones de derechos humanos.<br><br>Además, el propio Ministerio de Consumo del Gobierno español ha anunciado que investigará la actividad de CAF en relación con posibles vulneraciones que puedan derivarse de su participación en proyectos en territorios bajo ocupación.<br><br>Aunque el ayuntamiento de Beasain no tiene competencia normativa para forzar a una empresa privada a renunciar a un contrato internacional, sí tiene la legitimidad y la responsabilidad ética y política de expresar un posicionamiento ante actitudes empresariales que vulneran los derechos humanos. CAF es una empresa con presencia local, lo que refuerza la pertinencia de que este municipio exija coherencia entre sus prácticas y los valores de justicia, derechos humanos y responsabilidad social corporativa. |

| | |
|---|---|
| **jardunbideen eta justiziaren, giza eskubideen eta erantzukizun sozial korporatiboaren balioen arteko oreka egokia eskatzeko eskubide eta betebeharra ditu.**<br><br>**Erantzukizun sozial korporatiboak enpresek giza eskubideen urraketak eragin ditzaketen egoeretan parte hartzea edo haietaz baliatzea saihesteko egin beharreko ekintzak aurrera eraman ditzatela exijitzen du.**<br><br>**ERABAKI-PROPOSAMENA**<br><br>**Beasaingo Udalak:**<br><br>**1. CAFek legez kanpoko asentamenduak sendotzen laguntzen duten proiektuetan parte hartzen jarraitzea ez duela onartzen adierazten du.**<br><br>**2. CAFek nazioarteko zuzenbidearen arabera legez kanpo okupatutako lurraldeak zeharkatzen eta lotzen dituzten Jerusalemgo tranbiaren proiektuekin duen kontratua berrikustea eta, hala badagokio, berehala eta publikoki etetea nahi duela adierazten du.** | La responsabilidad social corporativa demanda que las empresas realicen las debidas diligencias para evitar participar o beneficiarse de situaciones que puedan implicar vulneraciones de derechos humanos.<br><br>**PROPUESTA DE ACUERDO**<br><br>El Ayuntamiento de Beasain:<br><br>1.Manifiesta su rechazo a que CAF continúe participando en proyectos que contribuyen a la consolidación de asentamientos ilegales.<br><br>2.Manifiesta formalmente su deseo de que CAF revise y, en su caso, suspenda inmediata y públicamente su contrato con los proyectos del tranvía de Jerusalén que atraviesan y conectan territorios ilegalmente ocupados según el derecho internacional.<br><br>3.En cumplimiento de la legislación europea y la debida diligencia en derechos humanos, manifiesta su firme deseo de que CAF lleve a cabo una nueva auditoría independiente de derechos humanos respecto de sus actividades en esos proyectos y que |

| | |
|---|---|
| **3. Europako legeria eta giza eskubideak errespetatuz, CAFek giza eskubideei buruzko beste auditoria independente bat egin dezan nahi duela adierazten du, proiektu horietan egiten dituen jarduerei dagokienez. Gainera inpaktu negatiboak identifikatzen badira neurriak har ditzala, giza eskubideen eta enpresa-erantzukizunaren nazioarteko estandarren arabera.**<br><br>**4. Alkateari eskatzen dio bidal diezaiola akordio hau CAFeko zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarrari eta giza eskubideen aldeko erakundeei, eta zabal dezala ahalik eta gehien herritarrek jakin dezaten.**<br><br>**5. Argi adierazten du, Beasaingo ordezkaritza demokratikoa den aldetik, nazioartean eragina duten gai etikoei buruzko jarrera publikoa hartzeko eskubidea ez ezik erantzukizuna ere baduela, batez ere gai horiek udalerriari lotutako erakunde eta nazioarteko zuzenbidearen urraketei buruzkoak diren heinean.** | adopte medidas correctivas en caso de que se identifiquen impactos negativos, conforme a estándares internacionales de derechos humanos y responsabilidad empresarial.<br><br>4.Insta a la alcaldesa a que remita este acuerdo a la dirección de CAF, al Gobierno Vasco, al Parlamento Vasco, a organismos de derechos humanos, y que su difusión pública sea máxima para conocimiento de la ciudadanía.<br><br>5.Deja constancia de que, en tanto representación democrática de Beasain, tiene no solo el derecho, sino la responsabilidad de posicionarse públicamente sobre cuestiones éticas de alcance internacional, cuando estas involucran a entidades vinculadas con el municipio y vulneraciones del derecho internacional. |